

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO KUADRILLA

Tokiko Gobernu Batzarra eratzea, lehendakariaren eskuduntzak eskuordetzea eta ohiko bilkurak egiteko eguna eta ordua zehaztea

Aiarako Kuadrillaren 2019-2023 legealdirako Tokiko Gobernu Batzarra eratu da, 2019ko urriaren 30ean egindako osoko bilkura berezian hartutako erabakiaren bidez.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 20.1 artikuluan eta Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiak 35. eta 52. artikuluetan xedatutakoa ikusi da.

Toki Araubidearen Oinarrien Legeak 23. artikuluan xedatzen duenez, Tokiko Gobernu Batzarra alkateak eta Udalbatzako kideen legezko kopuruaren herena baino gehiago ez den zinegotzi kopuru batek eratuko dute.

Aipatutako 23. artikulua xedatzen duenez, kuadrillako lehendakariaren eskumena da kideak izendatzea eta kargutik kentzea, kuadrillaren batzarrari horren berri emanaz.

Kontuan hartuz erakunde honetan organo hori eratzea ez dela nahitaezkoa, baina eratu egin zela 2019ko urriaren 30ean egindako osoko bilkura berezian, eta organoko kideak izendatzeko ditudan eskumenak ere kontuan hartuz,

Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 23.2 artikuluan Tokiko Gobernu Batzarrari esleitzen diola lehendakariari laguntzea haren zereginetan eta lehendakariak edo beste udal organoren batek eskuordetutakoetan, edo legeak esleitutakoetan.

Azaldutakoaren ondorioz, honen bidez ondokoa

Ebazten dut

Lehenengoa. Kuadrilla honetako lehendakari naizenez buru neu izanik, kuadrillako gobernu batzarreko kide izendatzea ondoko jaunak eta andreak:

- Josune Irabien Marigorta (EAJ-PNV batzarkide talde politikoa).
- Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV batzarkide talde politikoa).
- Ander Añibarro Maestre (EAJ-PNV batzarkide talde politikoa).
- Jon Escuza del Campo (EAJ-PNV batzarkide talde politikoa).
- Joseba Vivanco Retes (EH-BILDU batzarkide talde politikoa).

Tokiko Gobernu Batzarrak azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauan, kuadrillak arautzekoan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta aplikatzekoak diren gainerako ordezkotara arauetan xedatutakoaren arabera jardungo du.

Bigarrena. Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea lehendakariaren eskumen izan eta horiek eskuordetu ditzakeen eskumen guztiak. Eskumen horiek etorkizunean areagotu, murriztu edo aldatu egin daitezke. Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikulua xedatutakoarekin, eta kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarria (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), hona hemen eskumen horiek:

1) Zerbitzuak eta obrak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.

2) Onartutako aurrekontuarekin bat etorri eta aplikagarri den legediaren baitan, ekonomia kudeatzea eta bere eskumenpeko gastuak egitea.

3) Lanpostuen eskaintza publikoa onartzea, osoko bilkurak onartutako aurrekontuarekin eta plantillarekin bat etorriz; baita langileak hautatzeko proben oinarriak eta lanpostuak betetzeko lehiaketak ere. Horrez gain, finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.

4) Langileak: izendapenak eta zigorrak erabakitzea. Eskumen hau Lege horren 99.1 eta 3 artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe ulertuko da.

5) Alkatearen eskumen diren gaitan osoko bilkurari kaltegarri adierazpena proposatzeko ekimena.

6) Obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea, baldin eta eskumenik badu horiek kontratatu edo emateko, eta aurrekontuetan jasota badaude.

7) Obrak, hornidurak eta zerbitzuak kontratatzea, eta administrazio kontratu bereziak egitea honako kasu hauetan:

– Haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa.

– Haien balio zenbatetsia ez bada sei milioi euro baino handiagoa.

– Gehienez lau urteko iraupena (luzapenak barne hartuta) duten hainbat urtetarako kontratuak, baldin eta urte guztietan metatutako zenbatekoa ez bada lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta ere sei milioi euro baino gehiago.

8) Kontratu pribatuak egitea, bai eta kuadrillaren ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta ere hiru milioi euro baino gehiago.

9) Ondarea besterentzea, baldin eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta ere hiru milioi euro baino gehiago.

10) Ondare erantzukizuneko espedienteak izapidetu eta ebatzea.

11) Legeek berariaz lehendakaritzari ematen dizkietenak, eta estatuko zein autonomia erki-degoetako legeek udalerrinari eta ez beste udal organoei ematen dizkietenak.

Hirugarrena. Proposamena egitea kuadrillaren batzarraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzeko.

Laugarrena. Dekretu honen aurretik egindako izendapenak ondoriorik gabe gelditzen dira, eta dekretu honen edukiaren aurka dauden ebazpenak indargabetzen.

Bosgarrena. Tokiko Gobernu Batzarra hamabost egunean behin bilduko da, hilaren bigarren eta laugarren asteartean, 13:00etan, eta lehenengo bilkura 2019ko azaroaren 11n egingo da.

Seigarrena. Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 53.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko, erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Erabaki hau interesdunei eta talde politikoetako bozeramaileei jakinaraztea, bai eta kuadrillaren batzarrari ere, horrek egingo duen lehenengo bilkuran.

Arespalditza, 2019ko urriaren 31

Lehendakaria

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA